

## **2018KO EKONOMIA SUSTATZEKO PLANA DELA ETA MOZIOA**

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, 2018ko Ekonomia Sustatzeko Plana dela-eta KONTROL MOZIOA aurkezten du, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonentzako Batzordean 2018ko martxoaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2018ko martxoan gaude eta Donostiako Sustapenak ez du aurtengo plangintza oraindik ere onartu. Are gehiago, taldeen arteko bilerarik ez du deitu. Beraz, lanketa hasi gabe, noiz onartuko den ezin dugu jakin. Gauzak horrela, gure taldeak bi ildo indartu behar direla defendatu nahi du. Alde batetik, emakumeen aldeko apustu irmoa, datuen arabera 45 urtetik eta 55 urtetik gora lana aurkitzeko arazo handiak baitituzte. Bestetik, merkataritza eta auzoetako plangintzak (Amara Berri eta Egia) gauzatzea eta sektore osoari laguntza eskaintzea; hau da, Udalak bertako merkataritzan benetan sinets dezala.

Apirilaren 19an, Sustapenean, udal taldeen arteko bilera gauzatu zen. Besteak beste, bi ildo hauek jarri genituen mahai gainean eta Udal Gobernuak gai hauekin neurri batzuk hartu zituela eta irekita zegoela adierazi zigun. Zehaztaperen handirik ez du eman, ordea.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA**

1- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Sustapenak emandako diru-laguntzetan (kontratazioa, enpresak sortzea...) 45 urtetik eta 55 urtetik gorako emakumeekin lanketa berezi bat egin dezala, diru laguntza handiagoz, lana aurkitzea errazteko.

2- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Sustapenaren eskutik, auzoetako merkataritza plangintzak abian jar ditzala eta horretarako gobernu ordezkarien artean (Mugikortasuna, Gune Publikoak, Hirigintza eta Obrak, Partaidetza...) elkarlana sustatu dezala.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Josu Mirena Ruiz Martin  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia